

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Eltziegoko saltoki txikiei eta ostalariei laguntzeko zuzeneko eta ezohiko dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta oinarri arautzaileen laburpena, COVID-19ak eragindako ondorio ekonomikoak arintzeko

DDBN(Identif.): 529084

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnt-trans/GE/es/convocatoria/529084>).

1. Xedea eta zenbatekoa

Dirulaguntza horien bidez, Eltziegoko Udalak udalerrri horretan diharduten saltoki txikiei, ile-apaindegiei, ostalaritzako establezimenduei eta jarduera ekonomiko parekagarriei lagundu nahi die, COVID-19ak eragindako krisiaren eta hartutako neurrien ondorioz jasaten ari diren zailtasun ekonomikoak arintzeko, Eltziegoko sare ekonomikoari eusten lagunduz.

Dirulaguntza horiek zuzenean emango dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 c) artikulua eta 28. artikuluan 2. eta 3. apartatuak aplikatuz, interes publikoko, ekonomikoko eta sozialeko arrazoiak direla-eta. Zehazki, dirulaguntza horien izaera berezia dirulaguntza horiek eragin dituzten gertakarien salbuespenezko izaera bakar eta aurreikusi ezinaren ondorio da.

Aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa 8.000 eurokoa da, eta "2020 430 48 Ostalaritzarako eta saltoki txikietarako laguntzak" aurrekontu aplikazioari egotziko zaizkio.

Deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hilabeteko epean aurkezten diren eskaerei erantzun zaie harik eta erabili ahal den aurrekontua agortzen den arte.

Hautatutako eskaera guztiak aintzat hartuta, dirulaguntza horietan erabiltzeko aurrekontuko zuzkidurak muga horretara heltzen uzten ez badu, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan gutxituko da, aurkeztutako eskaera kopuruaren arabera.

2. Entitate eta pertsona onuradunak

Eltziegon diharduten saltokiek, ile-apaindegiek, ostalaritzako establezimenduek eta antzeko jarduera ekonomikoetako establezimenduek jaso ahal izango dituzte laguntzak.

3. Eskaera, dokumentazioa eta aurkezteko epea

Eskaerak udalaren sarrera erregistroan aurkeztu behar dira, edo Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan adierazten dituen bideetako edozeinez baliatuz, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hilabeteko epearen barruan.

Eskabidea udalaren web orrian egongo eskura: www.elciego.es.

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Laguntza eskaera eta sinatutako zinpeko adierazpena (l. eranskina).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintzan, Arabako Foru Ogasunean eta udal diruzaintzan betebeharrak egunean edukitzearen erantzukizunpeko adierazpena (l. eranskina).

- Zerga egoitza Eltziegon (Araba) duen jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta.
- Eskatzailearen NAN edo IFKen kopiak.

4. Laguntzen zenbatekoa

250 euroko kopuru finkoa emango da Eltziegoko saltoki, ile-apaindegi edo ostalaritza jarduera bakoitzeko, hala eskatzen duten pertsona fisikoek zein juridikoek, baldin eta establezimenduaren itxierak eragina izan badu jarduera horretan edo bezeroak nabarmen murriztu badira alarma egoera deklaratzegatik.

5. Ebazpena

Alkatea da dirulaguntza horien eskaerak ebazteko organo eskuduna. Ebazteko epea, gehienez ere, bi hilabetekoa izango da, eskaerak egiteko epea amaitzen denetik hasita.

Prozeduraren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie banan-banan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Emandako dirulaguntza banku transferentziaz ordainduko da onuradunak I. eranskinean adierazitako kontu zenbakian.

6. Dirulaguntza bat baino gehiago aldi berean jasotzea

Laguntza horiek bateragarriak dira beste administrazio publiko batzuek Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko ematen dituzten beste batzuekin, eta emandako laguntzen baturak ez du gaitortuko pandemiak eta pandemiaren ondorioek eragindako kalteen kostua.

Eltziego, 2020ko azaroaren 30a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE

I. ERANSKINA**COVID-19AK ERAGINDAKO KRISIAREN ERAGINPEAN DAUDEN
ELTZIEGOKO OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUENTZAKO ETA
DENDATXIKIENTZAKO DIRULAGUNTZEN ESKAERA**

Izen-abizenak:, NANa:,
helbidea: kalea zenbakia bere izenean / ho-
nen ordezkari izen-abizenak:, IFK:
egoitza soziala:, hau ADIERAZTEN DU bere erantzukizun pean:

– Nire jarduera sektorea hau da:, Adierazpen egileak /
ordezkatzen duen enpresak betetzen ditu COVID-19aren osasun krisiaren ondoriozko alarma
egoeraren aitorpenak eraginda Eltziegoko jarduera eta zerga egoitza duten ostalaritzako
establezimenduentzako eta saltoki txikientzako dirulaguntzen deialdi hau arautzen duten be-
tekizun eta oinarriak.

– Adierazpen egileak / ordezkatzen duen enpresak egunean ditu zerga betebeharrak Gizarte
Segurantzarekin eta Eltziegoko Udalarekin.

– Laguntza hori ematen badidate, titular naizen banku kontuaren zenbaki honetan sartzea:
ES.....

– Adierazpen egileak / ordezkatzen duen enpresak ez dauka Dirulaguntzen azaroaren 17ko
28/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako debekuren bat.

– Adierazpen egileak / ordezkatzen duen enpresak (jarri x bat dagokion lekuan):

– Kontzeptu bererako laguntzak jaso ditu, laguntza honekin bateragarriak direnak.

– Ez du beste laguntzarik jaso.

– Beste laguntza batzuk jasoz gero, horien zenbatekoak ez du gaituzten COVID-19ak era-
gindako krisiaren ondoriozko galera ekonomikoen gutzitzea.

Eltziego, 2020koaren(a).

(Adierazpen egilearen izenpea)